

KONTSEILUAK KUDEATUKO DUEN IKURRA KALITATE ZEINU GISA ERABIL AHAL IZANGO DUTE GIZARTE ERAGILEEK

Euskararen aldeko konpromisoak saritzeko ziurtagiria sortu du Kontseiluak

■ 'Bai Euskarari' ziurtagiriaren ikurra erakutsi zuten Kontseiluko kideek atzo Bilbon egin zuten aurkezpenean

■ Mendiguren: «Gure hizkuntzaren aldeko pauso oro saritzeko modua izango dugu lanabes berri honen bitartez»

■ Aurtengoak 'Bidean' leloa du, euskararen bidean barneratu izana baita ziurtagiriak erakusten duena

Gorane Agirre / Bilbo

KONTSEILUKO ordezkariak *Bai Euskarari* ziurtagiria aurkeztu zuten atzo Bilbon. Haiekin batera LKS Aholkularitzako estrategia ardura-dunak eta *Bai Euskarari* Akordioaren Jarraipen Batzordeko hainbat kide izan ziren agerraldian. Euskararen aldeko gutxieneko konpromisoak hartuko dituzten gizarte eragileek kalitate zeinu gisa baliatu ahal izango dute ikur hori.

«Ziurtagiri honekin lanabes berri bat aurkezten dugu, zeinaren bitartez gure hizkuntzaren aldeko pauso oro saritzeko modua izango dugun». Horrela aurkeztu zuen Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusiak *Bai Euskarari* ziurtagiria atzo.

Mendigurenek argitu zuenez, Akordioaren Jarraipen Batzordeak helarazi zion Kontseiluari ziurtagiria egiteko eskaria, horren bitartez euskararen aldeko pausoak saritzeko bidea zabalduko delakoan. Eskari hori hainbat talde profesionalekin aztertu zuten, eta ondoren Kontseiluko teknikariak eta Jarraipen Batzordeak onetsi zuten. Kontseilua arduratuko da ziurtagiria kudeatzeaz. Edonola ere, ez du ikuskatze egiturarik sortuko.

Aurrena, 'Bidean'

2000-2001eko epean erabiltzekoa da atzo aurkeztu zuten ziurtagiria. *Bidean* leloa du aurtengo ikurra, —*Bai Euskarari ziurtagiria Bidean*—, konpromisoak hartu izana, alegia euskararen aldeko bidean barneratu izana, baita ziurtagiriak erakusten duena.

Ziurtagiriaren definizioa oso garrantzitsua dela nabarmendu zuen Fermin Garmendia LKSko estrategia ardura-dunak; batetik, gizarte eragileek minimo homogeneo batzuk betetzea lortzeko, eta



JOSU ETXEBARRIOSTE

Bai Euskarari Ziurtagiriaren aurkezpen ekitaldia, atzo Bilbon.

bestetik, euskara erakunde barnean gestionatu beharreko beste aldagaitzat jotzea posible delako.

Joxe Jabier Iñigo Kontsei-

luko plangintza-buruak azaldu zuenez, ekainaren 13an Donostian egingo den ekitaldi batean emango zaie ziurtagiria Plan Estrategikoaren pro-

zesuan parte hartu eta bertan proposaturiko gutxieneko konpromisoak hartuko dituzten gizarte eragileei. Joxe Jabier Iñigok nabar-

mentu zuenez, «*Bai Euskarari* akordioa zazpiehun sinatzaileetatik laurdenek bere egiten badute, oso arrakastatsua izango da».

ezaugarriak

Baldintzak, helburuak eta prezioak

■ Datorren ekainaren 13an Donostian egingo duten ekitaldian banatuko duten *Bai Euskarari* ziurtagiria eskuratzeko baldintzen, helburuen eta prezioaren nondik norakoak hauek dira:

Helburua • *Bai Euskarari* ziurtagiriaren helburua hizkuntzaren normalizazioaren prozesu kualitatiboa kreditatzea da, *Bai Euskarari* akordioaren Plan Estrategikoan ezarritako neurrien aplikazioari lotuta eta asmo honen bitartez:

- Zerbitzuak euskaraz jasotzeko dagoen eskari sozial geroz eta handiagoari erantzutea.
- Erakunde parte-hartzaileen baitan hizkuntzaren normalizazioaren prozesua antolatzea eta horren eutsigarritasuna ahalbidetzea.
- Erakundeari gizartearen aurrean normalizazioaren alde eginiko lana kreditatzeko aukera ematen dio.



Baldintzak • Ziurtagiria *Bai Euskarari* akordioaren sinatzaile eta Plan Estrategikoaren prozesuko parte-hartzaileei zuzendua dago. Alabaina, prozesuan parte hartu ez duen edozein erakunde ere lor dezake, baldin eta *Bai Euskarari* akordioaren edukia onartzen dituela Kontseiluari adierazi eta dagokion sektoreak ezarritako konpromiso minimoak bere egiten baditu.

Bai Euskarari ziurtagiria 2000-2001 lortzeko baldintza da erakundearen aldetik bere sektoreari dagozkion neurri minimoak hartzea.

Prezioa • Ziurtagiria lortzeko erakundeak duen tamainaren araberako kopurua ordaindu beharko da. Urtero 10.000 pezetako prezioa izango du oinarritzat, eta horri erakunde bakoitzak duen langileko beste 1.000 pezeta gehitu beharko zaizkio.

Irudiaren erabilera • *Bai Euskarari* ziurtagiriak bere anagrama du. Berau lortzen duten erakundeek edozein publizitate euskarritan eta kanpo nahiz barne komunikazioarako erabili ahal izango dute. Ziurtagiri bakoitzak epe jakina du eta ezingo da erabili hurrengo aldiari dagokion ziurtagiria indarrean sartzen denean. Agiria kendu ahal izango zaio arrazoi hau edo beste dela medio erabilera okerra egin duen erakundeari.